

IRATISAIZAR



MUGIKORTASUNA BIZIKLETA FESTA

Mugikortasun Jasangarriaren Europako Asteari lotuta hainbat ekitaldi antolatu dituzte Ibarra eta Tolosako udalek, Tolosaldea Garatzen agentziarekin elkarlanean; ostiralean Bizibira egingo dute bi herrietako ikastetxeak bizikleta martxa batekin lotuz; Zumardiaundian bukatuko da festa, eta hainbat joko eta tailer egongo dira bertan // **2**

Laugarren egin du Zumaian, Iñigo Gorostarzu berastegiarrak

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako datozen hiru bertso saioetako puntuen zain egon beharko du aurrera egingo duen edo ez jakiteko // **3**

Ayestaran pilotari profesional ohiari omenaldia

Izaskun Ayestaran ibartarra omendu dute herrian; 60ko hamarkadan Madril en aritu zen profesional bezala // **4**

Otaegik bigarren eta 'Arria V.a'k hirugarren egin dute

Bigarrenez irabazi du Zumarragako Xabier Zalduak Euskal Pentatloi Txapelketa, eskualdeko ordezkari aurrea hartuz // **6**



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 ARRIKRUTZ Oñatiko kobak

Espeleotxiki; abentura familian.
Familiarentzako sarrera.

Umeak 6 urtetik gora izan behar ditu.
Bista eguna, taldea osatzean jarriko da.
943 08 20 00 / arrikruz@onati.eus / OÑATI
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**



2 DONOSTIAKO AQUARIUMA

Bi lagunentzako bina sarrera



www.aquariumss.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

3 ALTZOA proiektua – Goigana baserria

Bi lagunentzako gau bateko egonaldia
(behe denboraldian)



altzoa.eus
AMOROTO – Bizkaia

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

3 OSIN MASAJE ETA ESTETIKA ZENTRUA

Masajea



609447090
665754930
Hozpel kalea
ANOETA

Telefonoz parte hartzeko zenbakia: **54**

Parte hartzeko deitu **902-82 02 40** telefono zenbakira edo sartu **www.ataria.eus** webgunean • Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

Bizikletek hartuko dituzte Ibarra eta Tolosa, ostiralean

Europako Mugikortasun Astearen harira, Tolosa eta Ibarra arteko bizikleta bira ospatuko da ostiralean, eta bi herrietako ikastetxe guztiek hartuko dute parte.

Irati Saizar Artola

Ibarra eta Tolosako udalek hainbat ekitaldi antolatu dituzte aste honetarako Mugikortasun Jasangarriaren Europako Asteari lotuta, Tolosaldea Garatzen agentziaren laguntzarekin. Besteak beste, ostiral arratsaldean egingo dute bi herri horien artean Bizibira.

Ibarrako eta Tolosako ikastetxeak lotuko dituen bizikleta bira da Bizibira eta ikastetxeetara joateko eredu jasangarriagoak daudela frogatzea dute helburu.

Intujai antzerki taldeak dinamizatuko du ekimen hori. Igor Zapirain Ibarrako alkateak biraren xehetasunen berri eman du: «16:30ean Ibarrako plazatik abiatuko gara, eta Uzturpe ikastetxeko ordezkariak testigua eramango dute; 17:00etan Samaniegon izango gara, 17:10ean Herrikidetik pasako gara eta 17:20ean Laskorainera iristea da gure asmoa. Azkenik, Zumardiaundian amaituko dugu bira». Horra iristean, merienda egingo dute eta Bilboko Zirkozaurre zirku konpainiaren eskutik zirku tailerra egingo da. Puzgarriak ere egongo dira txikienentzat. Intujai antzerki taldeko May Gorostiagak herritarrak animatu nahi ditu zirku tailerretan parte hartzera, eta mezu bat zabaldu du: «Zaindu planeta, hartu bizikleta».

Zapirainek azaldu du, aurtan, Tolosa eta Ibarrako ikastetxeetara oinez, bizikletaz, garraio publikoaz edo auto partekatuz hur-



Iaz ere egin zuten Bizibira egitasmoa; irudian Zumardiaundian egindako amaierako festa. TOLOSako UDALA

biltzen diren irakasleak saritu egingo dituztela.

TOLOSARI BEGIRAKOAK

Tolosako ikastetxe guztietako 6. mailako ikasleak tailer praktiko batzuk egiten ari dira, egunotan, mugikortasunaren bueltan: udaltzainen gidaritzapean, Tolosako errepide eta bidegorrian zehar bizikletarekin joateko kon-tuan hartu behar diren arauen inguruan dabilta. Bihar izango dute tailerren azken eguna.

Ostegunerako, berriz, MUGI-puzkoa ekimena antolatu dute, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, Triangu-

loa plazan. Patxi Amantegi Tolosako zinegotziak azaldu duenez, «herritarrei Mugi sistemaren inguruko informazioa azaltzea da asmoa, eta gainera, Mugi txartela egiteko aukera ere eskainiko dugu». Interesa dutenek, gunean bertan izango dute argazkia ateratzeko, NAN eta Familia Liburuaren kopiak egiteko, inprimakia betetzeko eta ordainketa egiteko aukera. Era berean, erabiltzaileek txartelaren inguruko kezkak eta zalantzak argitu ahal izango dituzte.

HAINBAT DATU

Mugikortasun jasangarriaren sustapenean lanean ari dira eskualdeko udalak. Horixe azaldu du Garbiñe Mendizabal Tolosaldea Garatzeneko udal saileko arduradunak. «Aurtengo leloarekin, *Oinez eta bizikletaz segurtasunez ibili*, azpimarratu nahi dugu mugitzeko bi forma horiek

gure osasunerako, ingurumenerako eta gure ekonomiarako onurak dituztela», esan du.

Tolosaldeari dagokionez, auto pribatuen erabilera «oso altua» dela dio. «Gure eskualdean 0,67 ibilgailu daude biztanleko; eta hori, Gipuzkoako eta EAE mailakoa baino motorizazio tasa altuagoa da», azaldu du. Horren arrazoiak ere eman ditu: «Gure herri askoren landa izaera, eskualde barneko errepide konexio onak, amaitu gabeko bidegorri sarea...».

Eskualdean biztanleen joan-etorrien %54a autoz egiten dela ere aipatu, %10a garraio publikoan eta %36 modu alternatiboan. Mendizabalek esan du erronka bat dutela, «datozen urteetan %54 hori jaistea».

Bestalde, Gipuzkoako Bizikletaren behatokiak dio, 2017ko azken datuen arabera, Gipuzkoa mailan, eguneroko txirrindularien joan-etorrien ehunekoak jaitsi egin dela. «Horrenbestez, eten egin da 2014an hasitako goranzko joera». Hala ere, azpimarratu du Gipuzkoa mailan txirrindularien artean hobekien baloratutako bidea Zizurkil eta Asteasu artean dagoen bidegorria dela.

Ibarrako Gaztezulo ere prest da ikasturte berriari ekiteko

Izena eman baino lehen ate irekiak egingo dituzte, zerbitzua barrutik erakusteko; ikasturtea urriaren 8an hasiko da

I. Saizar Artola Ibarra

Ibarrako gazteak elkartzeko guneak, Gaztezulok, prest du ikasturte berria. Urriaren 8a izango dute ikasturteko lehen eguna, baina, aurrez, izena eman behar da. Ezagutzen ez duenak, gainera, ate irekietan aukera izango du funtzionamenduaren eta lekuaren berri izateko.

Ostegunean egingo dute lehen ate irekien saioa. LH 1etik 6ra bi-tarteko ikasleentzat izango da 16:30etik 19:30era. DBH 1etik aurrerako ikasleek, berriz, ostiralean izango dute aukera, ordu berean. Eta bihar bertan informazioa emateko bat egingo dute gurasoei, 19:00etan, Gaztezulon.

Izena eman nahi duenak, eskuorri bat bete behar du, eta udaletxean, udaletxeko webgunean, kultur etxean edota Gaztezulon izango du hori eskuratzeko aukera. Orri hori bete eta bi egunetan izango da entregatzeko aukera: irailaren 30ean eta urriaren 1ean, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, Gaztezuloko lokalean, Azkue 9 zenbakian.

Gaztezulon zer egiten den galdetzen duenarentzat badute erantzuna antolatzaile lanetan dabilzanek: «Egoteko espazio bat eskaintzen dugu; tailerrak, jolasak eta irteerak egiten ditugu, oporraldietan eskaintza bereziak egin eta herriko dinamikan parte hartzen dugu... Bestalde, haur, nerabe eta gazteen motibazioetatik abituz, beraien gaitasunak landu eta berriak eskuratzeko espazioak eskaintzen ditugu, herriko parte hartzaile aktibo bilakatzen saiatuz».

Arratsaldeak adin tarteka antolatzen dituzte, eskaintzen diren programazioa eta dinamika adin tartetara egokituz. Horri begira, taldeak osatzeko zozketa egingo dute urriaren 3an, 18:00etan, kultur etxean.

Taldeak osatuak egon bezain pronto, taldeen osaketen taulak udaletxe sarreran zintzilikatuko dituzte.



IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburrak.eus-en

Iñigo Gorostarzuk hanka eta erdi kanpoan

Berastegiarrak datozen hiru bertso saioetako puntuen zain egon beharko du; 416 puntu lortu zituen Zumaiaiko saioan

Imanol Artola 'Felix'

Zumaiaiko Aita Mari zineman izan da Gipuzkoako Txapelketa-ko final-zortzirenetako laugarren saioa. Iñigo Gorostarzu *Etxorde* berastegiarrak kantatu du bertan. Oholtzakide izan ditu, Saroi Jauregi gai-jartzailearekin batera, Ander Lizarralde (Oiar-tzun), Gorka Maiz (Gabiria), Jokin Bergara (Eibar), Beñat Jauregi (Zarautz) eta Unai Muñoa (Lasarte-Oria). Final-zortzirenetako azken saioarekin batera, emakumeen presentziarik gabeko saio bakarra izan da igandekoa.

MAIZ NAGUSI

Gorka Maiz izan da nagusi 441 punturekin. Hamarreko txikian, hain zuzen Etxorderekin osatu duen ofizioan, bakarrik lortu du taulakideek baino puntu gehiago. Halere, zortziko nagusia kenduta, beste ariketa guztietan bigarren puntuazio altuena lortu du gabiriarrak eta erregularatasun horrek eta publikoarekin konektatzeak eraman du saioko lehenengo postura.

Hamarreko txikian 107 puntu lortu ditu. Orain arte final-zortzirenetan ofiziorik puntuatuena Mantxiren zortziko txikia zen,



Gorka Maiz izan zen Zumaiaiko saioan puntu gehien eskuratu zituena, 441 guztira. BERTSOZALE ELKARTEA

101,5 punturekin. Etxordek ere 100 puntu lortu ditu Maizekin osatutako bertsoaldian. Beraz, txapelketako ofiziorik puntuatuena izan da orain arte, aitonabiloben paperetik osatu dutena.

ETXORDE FRESKO

Jendea gustura utzi du berastegiarrak egin duen lanarekin. Zortziko nagusian puntuazio txikiena lortu arren, ez da gaizki jardun eta beste ariketa gehienetan laugarren puntuazioa lortu du. Amaieran lortu duen postua beraz, ia ariketa guztietan.

Zortziko nagusian Muñoarekin osatu du ofizioa eta Jauregirekin kantatzea egokitu zaio txikian.

Lehenengoan zaharren zaintza lanetan ari diren biren paperetik kantatu dute. Etxordek gre-

ba proposamenarekin bat egin nahi du eta Muñoak ez. Irmo eutsi dio paperari *dena galduko degu ta orain/ kokiltzen hasten bagera* amaitu du lehen bertsoa eta zaharren zaintzak ez ote du ba/ merezi duintasuna bigarrena.

Txikian berriz, egunero Jauregiren tabernan pasatzen du goiza osoa egunkaria irakurriz, kafe bakarrarekin. Elkarrizketa polita izan dute, *berri onak kontatzea/*

PUNTUAKETA

Gorka Maiz. 441 puntu.

Unai Muñoa. 434,5 puntu.

Ander Lizarralde. 432,5 puntu

Iñigo Gorostarzu, 'Etxorde'. 416 puntu.

Jokin Bergara. 404 puntu.

Beñat Jauregi. 394 puntu.

nei ez dit axola,/ ea apetitu pixkat/ sartzen zaizun hola kantatu du Jauregik bigarren bertsoan, eta *batzutan gailera bat/ daukate opari* erantzun dio Etxordek bigarrenengan eta *atera txupito bat/ etxean kontura* amaitu du ofizioa.

Honakoa izan da kartzelako gaia: *Autobus-gidaria zara. Ez zara ausartzen ispilutik atzera begiratzen.* Guztiek bide ezberdinetik heldu diote gaiari. Maizek haurrekin Port Aventurara joan behar izan du. Etxordek sexu-eszena kontatu du. Lizarralde aurreiritziekin, kinki bat juzgatu du. Muñoak bere beldurrak izan ditu atzetik, ez beste inor. Bergarak mantero bat jotzen ikusi du polizia. Eta Jauregik sagardotegi garaian kokatu du bere burua.

HANKA ETA ERDI KANPOAN

Haritz Mujikak eta Beñat Iguaranez ez daukate puntuazioari begira egon beharrik, saioko lehenak izatearekin lortu dutelako final-laurdenetan kantatzeko eskubidea. Aldiz, Etxordek datozen hiru bertso saioetako puntuen zain egon beharko du.

416 puntu lortu ditu eta zuzenean sailkatu diren lau bertsolariak kenduta, hamabigarren postuan dago behin-behineko sailkapenean. Hamazazpi bertsolari sartuko dira puntuazioz. Horrek esan nahi du geratzen diren saioetan irabazleaz gain beste bi bertsolari sailkatuz gero, Etxordek ez duela sailkatzea lortuko.

Oñatin lauk lortu zuten bera baino puntuazio hobea, Villabonan ere bai eta Ordiziako laugarrenak ere bere puntuazio berbera lortu du. Guztiak orain arte bezala jarraitzen badu, gutxigatik baina kanpoan izango da berastegiarrak.

ORDIZIAN LIZASO

Beñat Lizaso (Azpeitia) izan da saioko irabazlea, 445 punturekin. Asier Azpiroz (Zubieta), Ane Zuazubiskar (Arrasate), Manex Mujika (Donostia), Aitor Urbieta (Zarautz) eta Ainhoa Agirreazaldegi (Zarautz) izan dira hurrenez hurren, Maddi Labakak aurkeztutako saioan.

Saio ona izan da Ordiziakoa ere. Erregularra eta kartzelara arte maila altukoa.

Kartzelan *Informatikaria zara. Ekarri dizuten ordenagailuaren edukia ikusita, ez dakizu salaketa jarri edo ez* gaiari hiruk pederastiaren ikuspegitik heldu diote eta beste hiruk alderdi politikoen finantziazio ilegalaz kantatu dute eta orokorrean, zehaztasun gutxiarekin.

Bakoitzak beretik

Iritzia
Adur Gorostidi
Harituz

Herenegun Zumaia berastegiarren bertaratutako gehienok, denok ez esatearren, arratsaldean aprobetxatu genuenarentzako sentsazioarekin etxeratu ginen. Beroa izan zen saioa zentzu guztietan.

Beroa izan zen igandeko hizpidea, Ander Lizarralde azken agurrean ironiaz kantatu bezala: *eskergarriya da publikoak/*

horrenbeste berotzia,/ eskergarriya fokoz betia/ aurre, erdi ta atzia/ (...) antolakuntzai esan nahi diyo/ asko ez bada eskatzia,/ bertsolarien asientu azpiyan/ radiadore bat jartzia.

Eta beroa izan zen hasieratik bai bertsolarien jarduna eta baita publikoaren erantzuna ere. Bertsolari bakoitzak bere bertsokera eraman zuen oholtzara eta beretik kantatu zuen. Eskertzen da hori. Ariketa bakoitza, sarritan, aurrez katalogatzen dugu eta badakigu umorearentzako tartea zortziko txikian dagoela eta gutxi gehiago. Bada,

igandean ez zen horrela izan.

Zortziko nagusian, hamarreko txikian eta kartzelan ere, jendeak barre egin zuen. Bai, kartzelan ere bai. Eta eskertzen da.

Nire ustez goia, Gorka Maizek eta Etxordek osatutako hamarreko txikian jo zuen saioak. Maiz bilobari ezkontza-gonbidapena eman dio Etxorde aitona. Jendeak ere barre egin zuen gaia entzunda, nahiz eta hamarreko txikian ez izan ohikoa. Ez da seinale ona izaten gaia entzunda publikoak barre egitea. Baina, saio antologikoa osatu zuten elkarrekin: *Seiga-*

rreren aldie o/ bado onezkero,/ eta biloba oaindik/ daukezu soltero hasi zen Maiz eta Etxordek *nahi zaitut ondotikan/ mugituara zi,/ gainera badaukazu/ nundikan ikasi* erantzun zion. Azken bertsoak berriz: *elizaz ezkontzen da/ aitona Gabirin,/ ta gero banketea/ daukegu Liernin,/ txin-txin egingo degu/ azkena izan dedin* izan zen Maizena eta Etxorderen erantzuna, gonbidapenari helduz, *izena soilik Gorka/ ipintzen duena,/ ea hurrena jarri/ leiken bigarrena.*

Kartzelakoan ere, Etxorde bera izan zen bikote bat larru-

tan irudikatu zuena. Honela amaitu zuen bertsoaldia: *ez det beidatzen miroi moduan/ inork ez izenpetzeko,/ baina orain geratzeko,/ unea heldu ta esan diet/ euren erropak biltzeko,/ nik ez dudala orain gogorik/ euren dena hartzeko.*

Kartzelako beste doinuei ere erreparatu, batek ez beste guztiek bost eta sei puntuko doinuak hartu zituzten, eta bertsoaldi onak entzun genituen.

Igandean eskertu genuen bakoitzak beretik kantatzea. Ni behintzat, horrekin geratzen naiz.



MENDIZ MENDI, ETXERA

Mendiz Mendi Etxera ospatu zen larunbatean Lizartzan. 470 mendizale elkartu zituen ekimenak. Ondoren, bazkarian, 500 lagunetik gora izan ziren. ATARIA



BEDAION ZEHAR ITZULIA

XIII. Mendi Martxa egin zuten igandean. Goizeko eguraldi goibelari aurre egin zioten mendizaleek. Goizeko 07:30ean ekin zioten bideari martxa luzeko mendizaleek eta ordu bate beranduago martxa laburrekoek. ATARIA



Izaskun Ayestaran omendu dute Ibarran

Plazako estalpean omendu zuten ostiralean pilotari profesional izandakoa eta ondoren 'Raketistak lehen eta orain' lana bota zuten

Erredakzioa Ibarra

Izaskun Ayestaran Perez Tolosa-ko Beotibar frontoian hasi zen pilotari gisa. Bertan, urte bete inguru entrenatzen aritu zen, inguruko beste pilotariekin, El-duingo Soroa raketistarekin, esate baterako. Urte horren ondoren, Madrilgo Fronton Madrid delakoan debutatu zuen 1960ko hamarkada hasieran eta han urtebetez aritu zen profesional gisa.

Raketisten historia, orain arte nahikoa isilik egon bada ere, esanguratsua izan zen oso. Hego Euskal Herriko 47 herritako 237 raketista profesional daude zenbatuta gutxienez. Zenbaki esanguratsua da eta gainera, 1940. hamarkadako estatistiken arabera, emakume lizentzia gehiago zeuden gizonenak baino. Raketista profesionalak bizimodua aurrera ateratzeko Euskal Herri-kanpora joan behar izan zuten: Espainiako estatuan, Ku-



Raketista oiha omendu zuteneko unea, ostiralean, Ibarako plazan. ATARIA

ban, Mexikon, Argentinan, Brasilen... aritu ziren.

Ostiralean, Ibarako plazako estalpean omendu nahi izan zuten Izaskun Ayestaran ibartarra. Opariak eta lore sortak eman ziz-

kioten eta ondoren agurra dantzatu zioten. Ostiralean bertan, pilotari profesional hauen ibilbidea jasotzen duen *Raketistak lehen eta orain* dokumentala eskaini zuten.



EUSKAL HERRIA EGUNA, IBARRAN

Baiona, Baigorri, Agurain, Lizarra eta Algortako herritarrak elkartu ziren larunbatean Euskal Herria Eguna ospatzeko. Bazkari jendetsua egin zuten herriko plazan. Arane iturrian hasi zuten eguna ongi-etorria eginez eta hamaiketakoarekin. Herrian zehar ibili ondoren, altxorren bila jolas poteoa egin zuten. Eguerdian, plazan elkartu ziren argazkia atera eta bazkaltzeko. Gauean, herriko DJ-a arituko zen musika jartzen eta gaztetxean bukatu zuten eguna. I.S.

Herensugea agertzearekin batera iritsi da festa Irurara

Ostiralean San Migel jaiak abiatzeko suzeria bota zuten herriko adinekoen zaintzaileek; larunbatean, herriko gazteek beren eguna ospatu zuten

I. Saizar / I. Urdalleta Irura

Hasi dira jaiak Iruran. Aurren, txupinazoa botatzea adinekoen zaintzaileei egokitu zaie eta Marian Iturbe herritarrek hartu zuen hitza ostiralean, herriko beste zaintzaile guztien izenean. Eskerrak eman nahi izan zizkien bertaratutakoei. Jarraian, kanpai hotsen artean, herensugearen mihiari su eman, eta udaletxeko balkoira jaitsi zen, bi aste-buruko festari hasiera emanez.

Gazteek beren eguna larunbatean izan zuten eta 09:00etan abiatu zuten egitaraua. Herriko kaleetan barrena ibili ziren dantzariak giroa jartzen, eta eguerdian, soka-dantza dantzatu zuten. Bitartean, goiz osoan zehar gaztetxoek hamaika jolasez gozatzeko aukera izan zuten.

Igandean, goizeko patata tortilla lehiaketaren ondotik, herri ki-

rolak izan ziren haurrentzat. Arratsaldean sagardo dastatzea egin zuten plazan.

Ostiralean helduko diote jaien bigarren asteburuari eta igandera arte ekitaldi ugari izango dira.



Ostiralean herriko adinekoen zaintzaileek bota zuten San Migel jaiak abiatzeko suzeria. IRATI SAIZAR



Gazteen dantza-soka egin zuten larunbatean eta San Migel plaza bete zuten dantzariak. Igandean sagardo dastaketa izan zen. IRATI SAIZAR / IRATI URDALLETA



FESTAMENTUA, BIDANIA-GOIAITZEN

Jendetza elkartu zen igandean Bidania-Goiatzen Tio Teronen semeak taldearen emanaldia ikusteko. Umorea eta dantza nahastuz, *Festamentua* izeneko ikuskizuna eskaini zuen taldeak. XXX. aldiz ari dira kultur astea ospatzen eta ostegunean segiko dute ekitaldiek. I.U.

tolosaldeko atariak

MARKETIN ETA SUSTAPEN ARDURADUNA BEHAR DU

ATARIA markaren sustapena landuko duen eta kaptazio eta fidelizazio estrategia eta ekimenak diseinatu eta gauzatuko dituen pertsona baten bila gabilta.

BALDINTZAK:

- Marketin, publizitate edo administrazio arloko ikasketak izatea.
- Marketin ezagutza espezifikoak edukitzea [sare sozialak, email marketina, analitika eta neurketa].
- Komunikazio, marketin eta sustapen lanetan izandako eskarmentua baloratuko da.
- Diseinu eta bideogintza alorreko ezagutzak baloratuko dira.
- Izaera dinamikoa, harremanetarako gaitasuna eta ekimena.
- Euskaraz jakitea.
- Tolosaldean edo inguruan bizi eta eskualdea ezagutzea.
- Autoa eta gidabaimena.

ESKAINTZEN DA:

- Lanaldi osoko kontratu iraunkorra.
- Lantokia Tolosan.

Erreferentzia: SUSTAPEN-2019

Interesa duenak **Curriculum Vitae** zehatza bidali Tolosaldeko Atariara [San Esteban, 20. 20400 Tolosa] edo tkt@ataria.eus posta elektronikora, erreferentzia zehaztuz. **2019ko irailaren 25a baino lehen.**

KIROL EMAITZAK

Areto futbola		
BIGARREN B MAILA		
2. jardunaldia		
Castro Urdiales-Lauburu	1-2	
Laskorain-Tafatrans	3-4	
Sailekpena		
3. Lauburu Ibarra	6p	
15. Laskorain	0p	
Hurrengo jardunaldia		
Lauburu (3)-Laskorain (15)		
Futbola		
1. MAILA NAZIONALA		
2. jardunaldia		
Osasuna 'B'-Tolosa CF	4-0	
Sailekpena		
9. Tolosa CF	3p	
Hurrengo jardunaldia		
Tolosa CF (9)-San Ignacio (1)		
HIRUGARREN MAILA		
6. jardunaldia		
Somorrostro-Tolosa CF	2-0	
Sailekpena		
10. Tolosa CF	8p	
OHOREZKO ERREGIONALA		
1. jardunaldia		
Goierri Gorri-Tolosa CF	0-7	
Sailekpena		
1. Tolosa CF	3p	
ERREGIONAL PREFERENTEA		
2. jardunaldia		
Lagun Onak-Tolosa CF 'B'	8-1	
Aretxabaleta-Billabona KE	1-3	
Danena KE-Orioko	2-0	
Sailekpena		
1. Danena KE	6p	
2. Billabona KE	6p	
13. Tolosa CF 'B'	1p	
LEHEN ERREGIONALA		
2. jardunaldia		
Anaitasuna-Intxurre	3-1	
Sailekpena		
7. Intxurre	0p	
GORENGO MAILA		
1. jardunaldia		
Intxurre-Amakak Bat	0-2	
Eskubaloia		
1. MAILA NAZIONALA		
1. jardunaldia		
Tolosa CF-El Pilar Maristas	18-19	
Sailekpena		
9. Tolosa CF	0p	
Hurrengo jardunaldia		
Alcorta Forg. Gr. (15)		
Tolosa CF (9)		

Otaegi bigarren eta 'Arria V.a' hirugarren, Euskal Pentatloian

Lehenengoa irabazi eta gero, bigarren goan ere Xabier Zalduak jantzi du txapela.

Erredakzioa

II. Euskal Pentatloi Txapelketa-ren finala jokatu zuten larunbatean, Azpeitiko zezen plazan. Sei kirolari aritu ziren nor baino nor: Joseba Otaegi zizurkildarra, Xabier Orbegoza Arria V.a Ibarra bizi den errejildarra, Xabier Zaldua zumarragarra, Luis Txapartegi aizarnarra, Aratz Mugertza mutrikuarra eta Joxean Olaskoaga Aizperro oriotarra. Iazko txapelduna izan zen berriro irabazlea: Zaldua, hain zuzen ere. Otaegik bigarren egin zuen eta Arria V.a-k hirugarren.

Irailaren 7an jokaturako kanporaketan egindako denboraren arabera, bi txandatan banatu zituzten kirolariak. Lehen txandan, Txapartegi, Mugertza eta Aizperro aritu ziren; bigarren goan, berriz, faboritoak: Otaegi, Arria V.a eta Zaldua. Guztiek lan berak egin behar izan zituzten: 100 kiloko harriari hogeita bost jasoaldi eman, 400 kiloko harriarekin bi plaza egin, hiru kanardiko ebaki, 50 kiloko bi txingarekin sei plaza egin eta hiru ki-



Joseba Otaegi eta 'Arria V.a', korrika saioan. UROLA KOSTAKO HITZA

lometro korrika aritu-zezen plaza 30 buelta-.

Lehen txandan, guztietan beteranoena nagusitu zen, dezenteko aldearekin; Txapartegik 41 minutu eta 40 segundo behar izan zituen lanak amaitzeko. Haren atzetik sailkatu zen Mugertza (43.03), eta lanak amaitzen azkena izan zen Aizperro (45.28).

Bigarren txandan, berriz, aurrea hartuz hasi zen Otaegi; harri-jasotze lanak amaitzean, minutu bateko eta hiru segundoko aldea zion Zalduari, eta minutu

eta erdikoa Arria V.a-ri. Gainontzeko lanetan ere aurreneko postuan mantentzea lortu zuen Otaegik, eta hura izan zen lasterka hasten aurrea. Zizurkildarra 58 segundoko aldearekin hasi zen korrika, baina Zalduak lan horri ekin zionean, nabaria zen Otaegi baino freskoago zegoela; hura harrapatu eta 31 segundoko aldea atera zion zumarragarri. Arria izan zen bigarren txandako lanak amaitzen azkena.

Otaegik azaldu duenez, «entrenamenduetan ikusten nuen

Zalduak aurreko urtean egindako denboratan egongo nintzela. Harri-jasotzen espero bezala joan zen, eta minutu bat atera nion. Gero, ordea, harriari tiraka ez nintzen hain gustura ibili eta Zaldua ondo aritu eta denbora erreperatu zidan. Aizkoran zerbait kendu nion, baina korrikakora iristerakoan, minutu bakarra nuen, eta ikusten nuen ez zela nahikoa izango. Oso ondo egin zuen korrika eta irabazteko aukera ikusten zuenez, gora etorri zen».

Guztira 52 korrikalarik parte hartu dute Berrobiko herri krolean.

Irati Saizar

52 korrikalarik hartu zuten parte aurtengo Berrobiran, Berrobiko herri krolean, pasa den larunbatean. Guztira 7,5 kilometro osatu behar izan zituzten Berrobiko kaleetatik. Maialen Muñoz eta Aitor Regillaga izan ziren azkarrenak.

Hamazazpigarrenez egin zuten Berrobira, Ibin Kirol Klubak antolatuta. Lehenik haurren txanda izan zen eta ondoren aritu ziren lasterka helduak. Parte hartu zuten 52 korrikalarietatik zazpi izan ziren emakumeak. Irteera eman aurretik, aurreko astean zendu zen Ibon Gonzalez

Regillagak eta Muñozek irabazi dute Berrobira



Berrobirako nagusien probaren une bat. I. SAIZAR

izan zuten gogoan, eta jarraian, hasiera eman zioten lasterketari. Gizonezkoetan, Aitor Regillagaren ondoren Raul Gomez eta Gorka Gil helmugaratu ziren. Emakumezkoetan, berriz, Maialen Muñozen ondoren Laiane Arrospide eta Naiara Zabala iritsi ziren helmugara.

Berrobitarrek ere sarituak izan ziren. Bi emakumek hartu zuten parte eta Josune Alberdi nagusitu zitzaion Begoña Olamusuri. Gizonezkoetan, Ibai Madina izan zen helmuga gurutzatu duen lehen berrobitarra, Jon Altuna bigarrena, eta Jon Alberdi hirugarrena.

Naia Amondarian, «gozatzen» mundukoan

Junior mailako erlojuaren aurkako proban parte hartu du Munduko Txapelketan.

Imanol Garcia Landa

Naia Amondarain txirrindulari ibartarra Munduko Txapelketan ari da parte hartzen, junior mailan. Atzokoan erlojuaren aurkako proban parte hartu zuen, 36. postuan amaituz. «Oso gogorra egin da, batez ere ibilbidearen-gatik», esan du Amondarainek. «Dena gorabeheraz betetakoa zen. Bihurgune arriskutsu batzuk ere bazeuden, eta gainera pixka bat bustita zegoen, beraz, kontu handiz joan gara erorketarik ez izateko».

Ez badu sentsazio ona izan ere, «sufrimendu horren barruan, gozatu egin dut eta horre-



Naia Amondarain, Munduko Txapelketan. PHOTO GOMEZ SPORT

kin geratzen naiz», esan du txirrindulari ibartarrak. «Postuari ez diot hainbeste begiratzen, azkenean Munduko Txapelketak dira, eta argi dago izugarritzko maila dagoela. Beraz, esperientziarekin geratzen naiz». Bigarren eta azkeneko proba ostiralean izango du Amondarainek, errepedekoa, hain justu.

HIRU DOMINA, PISTAN

Asteburu honetan Espainiako Pistako Txapelketa izan da jokoa. Eukene Larrarte tolosarrak bi domina lortu ditu Tania Calborekin batera: urrea Madison proban eta zilarra abiaduran. Unai Iribar ibartarrak zilarrezko domina lortu zuen taldekako abiaduran.



180 HAUR FUTSALEAN

Areto futboleko Tolosala klubak antolatuta, 4x4 I. Futsal Txapelketa jokatu zen Tolosako Armeria plaza, guztira 37 talde eta 180 haur. «Oso kontentu gaude. Ez genuen espero hainbeste parte hartzaile izatea», esan dute antolatzaileek. Alebinetan, Izurde Beltzak izan ziren txapeldunak eta Indartsuak bigarren. Benjaminetan Las-koraingo Lehoiak izan ziren irabazleak eta Mamuak taldea bigarren. ATARIA



Erika Amundarain, ezkerrean, podiumean. ATARIA

Amundarain eta Goenaga, podiumean

Erredakzioa

Erika Amundarain billabonatarak eta Asier Goenaga tolosarrak podiumera iritsi dira Eibar Igerixan taldeak antolatutako VI. Flysch Beltza itsas zeharkaldian. Bi distantzia egin ziren igerian: 3.000 metro (Mutrikutik Debara) eta 6.500 metro (Saturranetik Debara).

Goenagak 3.000 metroko proban parte hartu zuen eta gizonen mailan hirugarren postu absolutua lortu zuen, 46 mi-

nutu eta 36 segundoko denborarekin. Bestetik, Amundarainek 6.500 metroko proban hartu zuen parte eta emakumezkoen bigarren postu absolutua lortu zuen ordu bat 42 minutu eta 13 segundoko denborarekin.

Horiez gain, 6.500 metrotan Ioseba Mateos ibartarrak 1.34.32ko denbora egin zuen, gizonezko absolutuetan hamargarren eginez, eta maila horretan Kepa Jauregi tolosarrak 1.48.32ko denborarekin 39. postua egin zuen.



Asier Goenaga, eskuinean, podiumean. ATARIA

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



ASTEARTEA, 2019KO IRILAK 24
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraui, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEARTEA 24

AGENDA

Deialdiak

Zizurkil. Jaiak berdinzaleago egiteko parte hartze prozesua, 18:30ean, liburutegiko erabilera anitzeko gelan, Farapikooperatibak gidatuta.

Erakusketak

Ibarra. Marce Tenak zuzenduriko marrazketa, pintura eta adierazpen artistikoa tailerreko lanen erakusketak, kultur etxean.

Tolosa. Oihana Ugarteren grabatuak, 3 tabernan.

Tolosa. SAM enpresaren mendeurrenaren harira jarritako erakusketak, Aranburu jauregian, 17:30etik 20:30era.

ATARIA IRRATIA

09:00. Eguneko berriak; Elena Eguren komunikazio ez bortitza; Oihana Ugarteri elkarrizketa Tolosako Jabetze Eskolan eskainiko duen xilografia tailerrari buruz; Tolosaldeko alkateei elkarrizketak, gaurkoan Abaltzisketako Jon Zubizarreta...

12:00. Entzuteko Jaioak. Musikari eskaintako tartea.

16:00. Zerabidea. Arrosa Sareko magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Edurne Mujika Martinez. Euskal Herriakalea, 3. Telefono zenbakia: 943 67 09 15.
TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz

Galarza. Amartz auzoa, 9.
Telefono zenbakia: 943 67 51 18.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko.
16:30. Elkarrizketak (Itziar Cantera).
17:30/21:30. Gaurkoan Tolosaldeko.
22:15. Ireki Kaxa.
22:45. San Pedoren ibilbidea.
23:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Eguraldian nahastan hasiko zaigu, goiz partean nahiz eta hodei dezente agertu, giroa lasaia izango da, horibai, behe mailako hodeiak nagusituko zaizkigu eta giroa triste izango dugu. Haizea hego-mendebaldekoa izango da, baina eguerditik aurrera ipar-mendebaldeko ukituarekin euritara-ko joera izango du. Euri langar moduan litro gutxi pilatuko zaizkigu, hala ere. Haize aldaketa eta eguzki ordu gutxiagorekin 20-22 graduan kokatuko da tenperatura maximoa.



Bihar. Goiz partean giroa motelarekin hasiko dugu eguna, ipar-mendebaldeko haizearekin zerua estalirik agertuko da. Euri langar moduan oso gutxi botako du eta eguerditik aurrera giroa pixkanaka lasaitzen joango da. Arratsalde partean ostarte gehixeago agertuko zaizkigu. Termometroak 20-22 graduan errendituko dira.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Martxan da Argazki Lehiaketako bozketa

Bukatu da Udako Argazki Lehiaketan parte hartu ahal izateko epea, eta gaur ireki da bozkatzekoa; urriaren 13ra bitarte bozkatu ahal izango dira argazkirik gustukoena

Erredakzioa Tolosa

Bukatu da Udako Argazki Lehiaketan parte hartzeko epea. 109 argazki jaso ditu TOLOSALDEKO ATARIA-k eta guztiak daude ikusgai ataria.eus webgunean, Argazki Lehiaketa atalean.

Behin parte hartzeko epea bukatuta, bozkatzeko unea iritsi da; gaurtik urriaren 13ra bitarte egin ahal izango da. ataria.eus webgunetik bakarrik bozkatu ahal da. Hiru argazki aukeratu daitezke eta gailu bakoitzetik behin bakarrik bozkatu daiteke. Behin bozketa amaituta, bozka

gehien jaso duenak Alkizako Inazio Urruzola txakolindegian lau lagunentzako bazkaria egin ahal izango du.



Inazio Urruzola txakolindegia. ATARIA

SARI GEHIAGO

Erabiltzaileen saria ez da izango banatuko den sari bakarra.

Udako Argazki Lehiaketan parte hartu duten Atarikide guztien artean Tolosako Zumardia elkarteak eskaintako bi neguko eski ikastaro zozkatuko dira.

Eta noski sari nagusia ere egongo da; TOLOSALDEKO ATARIA-ren epaimahaiak parte hartu duten guztien artean irudi bat aukeratu du eta egileak bi lagunentzako asteburu bateko egonaldia egin ahal izango du Lekeitioko (Bizkaia) Kurtxia landetxean.

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus · 107.6 fm ·



Bi lagunentzako asteburu bateko egonaldia KURTZIA Landetxearen eskutik.

www.kurtxia.com 946840607 • 616945662 • Kurtzia auzoa, 11 - 48288 ISPASTER (Bizkaia)

Epaimahaiaren saria

Bozkatu hemen



Lau lagunentzako bazkari bat Inazio Urruzola txakolindegian

inaziourruzola.eus • 658 734 471 | 605 758 572
Arana Bailara, 18, 20494 Alkiza

ataria.eus-eko erabiltzaileen saria



Zumardia elkarteak eskaintako bi neguko eski ikastaro zozkatuko dira.

<https://www.zumardia.eus/>
688 726 213 \ info@zumardia.eus

atarikide-en saria